



Arartekoaren 2017R-1355-16Ebazpena, 2017ko urtarrilaren 25ekoa. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailari gomendatu zaio kexagilearen bi seme-alaba adingabeei familia ugariei buruzko legeditik sortutako hezkuntza eremuko matrikulatze eta azterketa onurak aitortzea, legedi horren ezarpen eremutik kanpo egoteko adin legala betetzen duten arte.

Aurrekariak

1. Hiru seme-alaba dituen eta familia ugarien onuren titularra den ama batek kexa bat jarri du Arartekoan Gipuzkoako Foru Aldundiak familia ugariko bere tituluaren iraungitzearekin eta titulu horrek interesdunaren familiari ematen dizkion onura batzuen iraupenarekin lotuta emandako erantzuna salatzeke, eremu horretan indarrean dagoen legediaren arabera. Kexagileak Gipuzkoako Foru Aldundiaren interpretazioa Zuzenbidearen arabera argitzea nahi du familia ugarien onura zehatz batzuen luzapenari dagokionean, *haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldatetari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen* xedapen batzuetatik sortutakoak. Kexa hau jarri duen pertsonak zehatz-mehatz dioenez, hiru seme-alabetako familia ugariaren titularra izanik eta bere seme nagusienak 2015eko apirilean titulu horren onuradun izateko adina gaudituz ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Saileko Haurrak eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuko buruaren ziurtagiri bat jaso zuen, 2015eko irailaren 24ko data duena. Ziurtagiri horretan zioenez, seme nagusiak 26 urte betetzean (ikaslea izanda, familia ugariko kide izateko adin muga) familia ugariko titulua iraungita egon arren, *-Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legea* aldatzen duten *haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen* bosgarren xedapen iragankorrean eta azken xedapenetatik bosgarrenean oinarrituta– bere beste bi seme-alabei, 26 urtez beherakoak izanda biak, hezkuntzaren eremuan matrikulaziorako eta azterketarako dituzten eskubideei buruzko onurak hedatu behar dizkiela. Dena den, ziurtagiri horren arabera, *Familia Ugariak Babesteko 40/2003 Legearen* 12.2 a) artikuluan jasotako onura horien hedapena, 2015/2016 ikasturterako baino ez da.
2. Kexagilea matrikulazio eta azterketa eskubideei dagozkien onuren behin-behineko mugarekin ados ez dagoenez, ziurtagiri horretan adierazten dena, Gipuzkoako Foru Aldundira jo zuen (aurrerantzean, GFA) ziurtagiri honen esanahiari argitzeko eskatuz. Gipuzkoako Foru Aldundiko Informazio Zerbitzuak (Xara, lehenengo informazio postua) 2016ko maiatzaren 4an igorritako posta elektronikoa bidez jakinarazi zitzaion ezin duela bere familia ugariko titulua berritu, zeina 2015/04/17an iraungi baitzen, seme nagusiak 26 urte bete zituen egunean, data hori *haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak* egindako lege erreforma 2015/08/17an indarrean jartzeko dataren aurrekoa izateagatik; izan ere, harrezkero, familia ugariak ez du bere izaera galtzen semerik txikienak adin hori bete arte.





Bestalde, pertsona horri bidalitako posta elektroniko berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak zehaztu egin zuen hala ere, legeak berak, matrikulazioaren eta azterketarako eskubideen ondorioetarako, familia ugariaren onurak familian geratzen diren 26 urtez beherako seme-alabei hedatzea aurreikusten duela, hedapen hori 2015/2016 ikasturtera mugatu arren –eta hortxe dago GFAk argitu ez duen kontua, kexagilearen iritziz–.

Hitzez hitz kopiatzen ditugu jakinarazpen hori:

“Comprobado su expediente, le comunico que no tienen posibilidad de renovar su título de familia numerosa, ya que esta caducó el 17/04/2015, fecha en la que su hijo mayor cumplió 26 años. Si su título hubiese caducado después de la entrada en vigor de la nueva ley (17/08/2015), sí que podrían haber continuado hasta que el menor hubiera cumplido los 26 años.

Para las familias cuyo título caducaba entre 01/01/2015 y la fecha de entrada en vigor de la nueva ley 17/08/2015 cabía la posibilidad de hacerles un certificado sólo a efectos de matriculación y derechos de examen para el curso 2015/2016. Dicho certificado le fue remitido en septiembre de 2015 (adjunto documento).

Espero haber aclarado sus ideas.”

Bada 2016ko maiatzaren 4an bertan interesdunak mezu horri erantzun zion beste posta elektroniko baten bidez, eskatuz argitzeko zer lege oinarriekin mugatu behar den 2015/2016 ikasturtera familiako adin txikiko seme-alabentzako hezkuntza eremuko aipatu onuren hedapena. Erantzunik jaso ez zuenez, 2016ko maiatzaren 17an interesdunak berriz erabili zuen bide bera GFAko informazio zerbitzuari berriz eskatzeko egindako galdera argi ziezaiola. Berriz ere argitzeko eskariari erantzunik eman ez ziotenez, herritar honek Arartekoarengana jotzea erabaki zuen.

3. Kexaren planteamendua aztertu ondoren, uste dugu gai honen azpian forma kontu bat eta funts beste bat dagoela. Horrela, lehendabizi GFARA jo genuen herritar honen erantzuna formalizatze faltarekin lotuta, Arartekoaren ustez legeak exijitu dezakeen arrazoitzea ez duen erantzuna baita. GFARI azaldu genion bezala, GFA familia ugarien eremuan indarrean dagoen legeditik sortutako onurak denbora mugatzeko erabakia hartzeko arrazoi juridikoak ezagutu ondoren, erabaki hau Zuzenbidera egokitzen zaion edo ez jorratuko da. Testuinguru horretan, Arartekoak bere informazio eskari idatzian GFARI gogorarazi dio foru erakunde horri dagokiola berariaz eta argi jakinaraztea herritar horri *haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen* bosgarren xedapen iragankorrean eta azken xedapenetatik bosgarrenean hezkuntza eremurako onartutako onuren hedapena 2015/2016 ikasturtera mugatzeko izatezko eta zuzenbideko arrazoi zehatzak. Galdera oso zehatza da eta GFAk behar bezala oinarritu behar du harentzako erantzuna; izan ere, erabaki horrek onurak kentzea –eta, beraz, karga bat– dakarkio interesdunaren familiari 2016/2017 ikasturterako.





4. GFAko Gizarte Politiken Foru Diputatuak eskari hau erantzun du, adieraziz Arartekoaren irizpidearekin bat egiten duela foru erakunde horrek bere jarduera eta erabakiak oinarritzeko izatezko eta eskubidezko arrazoiak egoki oinarritzeko betebeharrari dagokionean, batez ere horien bidez eskubideak edota onurak mugatuko direnean. Gaineratu du Haurrak eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuak normalean eremu honetan esfortzu handia egiten duen arren –Arartekoak beste kexa batzuen izapidetzean aitortu duen bezala–, egia da kasu honetan interesdunak egindako argitzeko eskariek ez dutela erantzunik jaso. Horregatik, foru diputatuak irregulartasun hori zuzendu dela adierazi du, kexagileari azalpen idatzi bat bidali diola, matrikulazio eta azterketa eskubideei dagozkien hezkuntza eremuko onuren mugatzearen arrazoiak azaltzeko, 2015/2016 ikasturtean bakarrik eta 2015/01/1ean euren titulua indarrean zegoen eta *uztailaren 18ko 2015/26 Legea* indarrean sartu aurretik galdu zuten familiei, lege horren bosgarren xedapen iragankorrean adierazitakoaren arabera.
5. Gainera, GFAk bere erantzunean izatezko eta zuzenbidezko oinarrien erreferentzia bat sartu du. Horien bidez, hezkuntza eremuko aipatutako onura ekonomikoak, euren titulua 2015/01/1 eta 2015/26 Legea indarrean sartzeko dataren artean amaitu den familia ugarientzako, 2015/2016 ikasturterako bakarrik mugatzen direla ondorioztatu daiteke. Interpretazio horren laguntza gisa, *haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen* bosgarren xedapen iragankorraren eta azken xedapenaren hedapen eta ondorioak mugatzen dituena, GFAk ere informazio ohar bat gehitu du bere erantzunean, 2015eko uztailaren 30ean Osasun, Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasun Ministerioko Estatuko Idazkariak egindakoa. Bertan, foru erakundeak idatzitako xedapen legal horien interpretazio berdina egiten du.
6. Aurrerago, kexagilea berriz ere zuzendu zen erakunde honetara, adieraziz GFAk 2015/2016 ikasturteko familia ugariko tituluaren hezkuntza onurak mugatzen dituen arrazoi juridikoak ezagutu ondoren eta interpretazio berri honekin ados ez dagoenez, berriz ere GFARA jo duela bere seme adingabeei onura horiek emateko eskatzeko, horietako bakoitzak 26 urte bete arte (ikasleak izanda). Horretarako, interesdunak argudiatu du GFAREN interpretazioa ez dela, bere ustez, Zuzenbidearen araberakoa. GFAk berriz ere erantzun dio interesdunari bere eskaria ukatuz eta hasiera bateko interpretazioa berretsiz. Izan ere, horren bidez ulertzen du familia ugariko titulutik sortutako onurak 2015/2016 ikasturtera mugatu behar direla, bere kasuan.

Gogoetak

1. Aurrekari gisa argitu beharra dugu familia ugarien eremuko legediak, Gorte Orokorretatik sortutako eta familia batzuei sektore eremu oso ezberdinetan onura ekonomiko batzuk ematen dien estatuko legedi bat izanda ere (garraioa,





hezkuntza, ogasuna etab.), Autonomia Erkidegoek ezartzen dutela –familia ugariko tituluen aitortza, emate eta iraungitzeari dagokionean–, familien eremuan dituzten eskumenen gauzatzean. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, autonomia erkidego hau osatzen duten lurralde historikoen foru izaera bereziaren arabera, foru aldundiak dira familia ugariko tituluen kudeaketari dagokionez eskumena dutenak. Horrek azalduko luke kexa hau, estatuko eremuko xedapen legal baten ezarpenari buruzkoa bada ere, foru aldundi horietako batean gauzatzea, zehatzago Gipuzkoako Foru Aldundian.

2. Atzerago adierazi dugun bezala, Arartekoan planteatutako gai honek dimentsio bikoitza dauka, formala eta materiala, gogoeta hauetan bere osotasunean jorratu beharrekoa. Horrela, alde batetik, **alderdi formalari** dagokionean, GFAk kexa hau sustatu duen **herritarrari erantzuna egoki ez emateagatik** egindako akatsa onartu du prozedura honetan zehar, eta irregulartasun hori nahikoa zuzendu du, erabakia xehetasunez azaltzen duen eta interesdunarentzat erabaki horrek sortzen dituen onuren mugatzearen oinarri juridiko eta motibazioa diren eta azpian dauden izatezko eta zuzenbidezko arrazoiak azaltzen dituen erantzun luze bat berriz ere bidaltzean. Horregatik, prozedura alderdi honi dagokionean, Arartekoak bere poza adierazi nahi du bere esku-hartzearen ostean GFAk administrazio prozeduraren legeditik sortutako legezko aginduak eta administrazio onaren printzipioa egoki bete dituela ikustean, interesdunak xehetasunez eta nahikotasunez ezagutu ahal izan dituelako foru erabakiaren arrazoiak, aurrerago xehetasun handiagoz jorratuko ditugun funtseko gaiak bere defentsarako argudiatzeko aukera ematen diona.
3. Gai honen funtsari dagokionez, lehendabizi familia ugariren eremuan *haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen* bidez aurrera eramandako legezko erreformaren testuingurua eta termino zehatzak argitu behar ditugu: Horrela, lege horren azken bosgarren xedapenak *Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legea* aldatzen du, zehazki, familia ugariren titulua familia ugariko kide izateko legezko adin gutxiakoak (21 edo 26 urte) diren seme-alabei hedatzeari dagokionean, familia ugariko seme-alaba txikienak muga gisa ezarritako legezko adin hori bete arte (26 urte, ikaslea bada), hau da, ondorioz, familia ugariko titulua adin hori baino txikiagoak diren seme-alabentzat ez iraungitzea euren anai-arreba nagusiek gehieneko adin hori betetzen dutelako eta familia ugariko titulua izateko irizpidetik kanpo geratuz. Horrela jasotzen da aipatutako 26/2015 Legearen hitzaurrean (VI epigrafea). Bertan, gogoratzen da *“oraingo araudiak tituluaren indarraldia baldintzatzen du, aurreikusitako baldintzak betetzen dituen seme-alaben kopurua ezarritako gutxienekoa izan arte. Horrek esan nahi du neba-arreba nagusiak titulutik ateratzen direnean, adin-betekizuna betetzeari uzteagatik, funtsean, familiak tituluaren eskubidea gal dezakeela, betekizunak betetzen dituen hiru edo bi neba-arreba baino gutxiago badaude. Paradoxikoa da familiarentzat tituluaren eskubidea sortu duten neba-arreba txikiek gero onurez ezin gozatzea. Kontuan hartuz, ehuneko handi-handi batean, indarreko tituluak hiru edo bi seme-alaba dituzten familia ugariei dagozkiela, nagusiak gehieneko adina betetzeak tituluaren galera dakar eta*





askotan familia osoak galtzea onurak. Hortaz, erreforma hau familia ugarien benetako egoerara egokitu nahi da eta neba-arreben artean diskriminazioa egon dadin saihestea”.

Lege honen azken bosgarren xedapenak, zehazki, *Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 6. artikulua* aldatzen du. Aurrerantzean, hauxe izango da horren bertsioa, bigarren saiakeran idatzitakoa:

6. artikulua. Titulua berritzea, aldatzea edo galtzea (...)

Tituluak indarrean jarraituko du, tituluaren parte izateko baldintzak betetzen dituen seme-alaba kopurua 2. artikuluan ezarritakoa baino txikiagoa izan arren, horietako batek behintzat 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituen bitartean. Dena den, kasu hauetan tituluaren indarraldia haren parte izaten jarraitzeko baldintzak oraindik betetzen dituzten bizikidetz-unitateko kideei bakarrik luzatuko zaie, eta ezin izango zaie betetzen ez dituztenei ezarri.

Lege-erreforma familia ugarien benetako egoerara egokitzea nahi du eta neba-arreben arteko diskriminazioa saihestu. Horrela, familia ugariaren titulua mantenduko da seme-alabetako azkenak legean ezarritako gehieneko adina bete arte. Hala, bere neba-arrebek izandako onura berak izango ditu.

4. Baina arazoa da, hala ere, **erreforma horren hedapen subjektiboa mugatzea**, hau da, zeintzuk diren erreforma honen onura atera dezaketen familia ugariak eta zeintzuk geratuko diren kanpo. Kontuan izan behar da erreforma hau indarrean sartu zela, hogeita batgarren azken xedapenaren arabera, argitaratu eta hogeit egunera, hau da, 2015eko abuztuaren 17an. Data horrek, orokorrean, lege honetako aurreikuspenen ezarpen eraginkorraren hasiera zehazten du, eta hasiera batean data horretan oraindik indarrean dauden familia ugariko tituluei bakarrik ezar dakieke. Dena den, legegileak lehen aipatutako azken bosgarren xedapenaren eragin batzuk 2015eko urtarrilaren 1era arteko atzeraeraginezko efektua izatea nahi izan du, ondorioz, data horretan indarrean zeuden tituluetan ere eragina izanez. Horregatik, lege bereko **bosgarren xedapen iragankorrean** ezarritakoaren arabera, honakoa adierazi da:

***Bosgarren xedapen iragankorra.** Matrikulazio eta azterketa eskubideen onurak hedatzea hezkuntzaren eremuan 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egon diren familia ugariaren tituluei.*

Azken bosgarren xedapenean aurreikusitako familia ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 6. artikuluen aldaketa, aplikatu ahal izango da 2015eko urtarrilaren 1ean indarrean zeuden familia ugariaren tituluei, hezkuntzaren eremuan aipatutako Legearen 12.2 a) artikuluan aurreikusitako matrikulazio eta azterketa eskubideei buruzko onurak lortu ahal izateko soilik.



40/2003 Legearen 6. artikulua berri honen eraginetako batzuk (ez denak) duten **atzaeraginezko hedapen** honekin, 2015eko urtarrilaren 1etik eta legearen indarraldira arte (2015eko abuztuaren 17a) titulua galdu duten familiei bermatu nahi zaie hezkuntza eremuko onurak lortu ahal izango dituztela, legea indarrean sartu ondoren familia ugari izaten jarraitzen duten gainontzeko familiak bezala, titulua izaten jarraituko dutenak (eta kasu honetan, hortik sortutako onura guztiak) 21 urtetik beherako seme-alaba bat duten bitartean, edo 26 urtetik beherako ikaslea den seme-alaba, euren anai-arreba nagusiek baldintza horretatik kanpo geratzeko adin legala gainditu arren. Bestalde, 2015eko urtarrilaren 1ean bere familia ugariaren titulua indarrean ez zuten familia ugariak ez dute erreforma legal honen eraginik pairatuko eta ez dute hezkuntza eremuko onuren atzaeraginezko hedapena jasoko; *hautzaroa eta nerabezaroa babesteko sistema aldatzeko 26/2015 Legearen* bosgarren xedapen iragankorrak gauzatu du hedapen hori.

5. Esku-hartze honen oinarri den gaian, hala ere, GFAk adierazitako 26/2015 Legearen **bosgarren xedapen iragankorraren terminoen interpretazio mugatzailea** egiten du. Foru erakundearen ustez matrikulazio eta azterketa onuren hedapena 2015/2016 ikasturterako bakarrik da. Beraz, kexagilearen seme-alabek ezin izango dute ikasturte horretatik haratago familia ugariak euren kide izaera balioztatu, hezkuntza eremuan matrikulazio eta azterketa onura zehatzak izateko ondorioetarako. Dena den, jarraian adieraziko den bezala, erakunde honen ustez ezin da exegesiaren helburu den bosgarren xedapen iragankorraren literaltasunetik edo espiritutik ere ondorio hori atera.

Egiazki, aipatutako azken bosgarren xedapenean aurreikusitako *“familia ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 6. artikularen aldaketa, aplikatu ahal izango da 2015eko urtarrilaren 1ean indarrean zeuden familia ugariaren tituluei, hezkuntzaren eremuan* aipatutako Legearen 12.2 a) artikuluan aurreikusitako matrikulazio eta azterketa eskubideei buruzko ***onurak lortu ahal izateko soilik.***” Egiaztatu daitekeen bezala, ezerk ez du adierazten onura horiek ikasturte zehatz batera mugatzen direnik, eta 12.2 a) artikulua ere ez du aipatzen, familia hauei hedatzeko hezkuntza eremuko zein onura mota argitzeko xedapen legal honek aipatzen duena. Zein da orduan Gipuzkoako Foru Aldundiak xedapen legal baten helburuaren hedapena duen interpretazio mugatzaile bat egiteko oinarria? GFA horretan oinarritu da Osasun, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun Ministerioko Familia eta Hautzarorako Zerbitzuen Zuzendaritza Orokorrak 2015eko uztailaren 30ean bidalitako familia ugariaren eremuan aurrera eramandako legezkotako erreformaren hedapenari buruzko *informazio ohar* batean, non GFAk egindako interpretazio berdina egiten den, eta honakoa adierazten da:

Alcance temporal de la modificación

Esta modificación entrará en vigor el próximo 17 de agosto de 2015 (.....). (.....) Por tanto, sólo es aplicable a los títulos que se encuentren





*en vigor en esa fecha. Cuando el título se hubiera extinguido antes de la entrada en vigor, las familias no tienen derecho a recuperarlo, aunque sigan teniendo hijos menores de 21 o 26 años a cargo. Como excepción, las familias numerosas cuyo título estuviera en vigor a 1 de enero de 2015 y lo hubieran perdido en una fecha anterior a la entrada en vigor de la modificación, podrán acceder **este curso académico próximo** a los beneficios por matriculación y derechos de examen (reducción del 50%).*

Adierazitako Ministerioaren informazio oharra, titulu hauek kudeatzeko eskumena duten Autonomia Erkidegoei zuzendutakoa, azken kasu honen adibide praktiko bat azaltzen du, GFAk Arartekoari bidalitako idatzian transkribatu duena, eta 2015eko martxoan tituluaren eskubidea galdu duen familia ugari baten kasu hipotetikoa aipatzen duena, seme-alaba nagusiak gehieneko adina betetzean eta irizpideak betetzen dituzten hiru seme-alaba baino gutxiago geratzean. Adibideak jarraitzen du adieraziz bi ahizpa txikiak –kasu hipotetiko honetan–, 2015/2016 ikasturtean unibertsitateko matrikularen %50eko murrizketa izaten jarraitu dezaketela, 2015eko urtarrilaren 1ean oraindik euren titulua indarrean jarraitzen duelako, baina ez hurrengo ikasturtetarako.

GFAak interesdunari bere erabakiaren oinarriak azaltzeko helarazitako idatzian, foru erakundeak interpretazio horrekin bat egiten du eta defentsarako honakoa dio (sic): *“Xedapen iragankorra denez, aldi baterako alderdiak arautzen ditu, hau da, ez dira betiko, eta, ondorioz, interpretatu behar da xedapen horrek 2015-2016 ikasturteari buruzko egoera ebazten duela, ikasturte horretan sartu baita indarrean araua, eta ez da hurrengo ikastaroetara zabaltzen. Legegilearen asmoa izan balitz hezkuntza onurak hurrengo ikastaroetara ere zabaltzea, beste modu batera idatziko zuen, hala dela berariaz esanda, eta beste xedapen mota batean, dela xedapen osagarri, dela azken xedapen. Bosgarren Xedapen Iragankorraren gainean Gipuzkoako Foru Aldundiak, gainerako foru aldundiek bezala, egin duen interpretazioak Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak eta Euskal Herriko Familia Ugarien Erakunde arteko Talde Teknikoak emandako jarraibideak betetzen ditu.”.*

6. Puntu honetan Arartekoak **interpretazio** hau zalantzan jarri besterik ezin du egin, **legearen letra eta izpirituen aurkakoa** dela uste duena, ondoren adierazten diren arrazoiengatik:

Hasteko, Herri-Administrazio baten **informazio oharra** (Espainiako Gobernuak Osasun, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun Ministerioa den bezala) informazioa eman, beste administrazioei edo administrazio organoek administrazio aplikazioan bideratu besterik egiten ez duenak, ezin du, inolaz ere, xedapen legal baten literaltasuna aldatu, horrekin legegilearen borondatea ordeztuz, eta ezin die, era berean, titulu hauek kudeatzeko (eremu autonomikoan legedia ezartzea) eskumena duten gainontzeko herri-administrazioei *ultra legem* ondorioak dituen interpretazio bat ezarri, gure ustez oraingoan defendatzen ari dena den bezala. Informazio ohar honen





izaera juridikoa administrazio jarraibide batekin gehienez bakarrik alderatu daiteke, eta ezin du inolaz ere, lege baten aurka jo edo bertan ezarritakotik haratago joan, ezta lege horren interpretazio pautak izaera loteslearekin ezarri, gure erakundearen sisteman eta Zuzenbidearen Estatuan organo judizialek eta Konstituzio Epaitegiak bakarrik bete dezaketen funtzioa baita. Hau horrela izanik, uste dugu **ezin dela, beraz, informazio ohar bat legeak modu argi eta agerian erregulatzen duena aldatzeko oinarritzat hartu.**

Bestalde, zalantzan jarritako arau legala egiazki **izaera iragankorra duen araua** da, baina ez du, hala ere, ikasturte bati aitortzen dizkion matrikulazio eta azterketa onuren berariazko muga ezartzen inolako terminoetan. Izaera iragankorra ez da arrazoi honengatik zalantzan jarri; alderantziz, egiaztatu daiteke legegilearen borondatea denbora epe mugatu bat (2015eko urtarrilaren 1a - 2015eko abuztuaren 17a) ezartzea zela –hortik iragankortasuna–, epealdi horretan euren seme-alaba nagusietako baten irteera dela eta (familia ugariko seme-alaba izaera iraungitzen duen adin legala betetzeagatik) familia ugariko titulua galdu duten familiei, familia ugariaren parte izateko adinari buruzko baldintza legalak betetzen dituen beste seme-alabaren bat dutenean, betiere. **Xedapen honen iragankortasunaren oinarria da, beraz, haren ondorioen behin-behinekotasuna, ezarpen eremuaren subjektibotasuna dela eta**, xedapen hau kolektibo zehatz bati bakarrik –euren titulua 2015eko urtarrilaren 1etik 2015eko abuztuaren 17ra bitartean iraungi zaien familia ugariak, famili ugariaren parte izateko adin irizpideak betetzen jarraitzen dituzten seme-alabak dituzten bitartean– ezarri behar zaiola diona. Modu horretan, denborak ondorioak mugatuko ditu, hau da, behin betiko baliogabetuko dira kolektibo horretako azken seme-alabak familia ugariko kide izaera galtzeko legeak ezarritako gehieneko adina betetzen duenean.

Ez gaude GFAk xedapen legal honek ematen duen onuraren iragankortasunaren interpretazioarekin ados, **legearen letrak ez baitu mugarik ezartzen, ez esplizituki ezta inplizituki ere**, zentzu horretan. Baina gainera GFAk defendatutako interpretazioa –arauaren literalasunean eta izpirituan islarik ez duela uste duguna (lehen komentatutako arrazoiaren azalpena kontuan izanda)– **herritarren aldeko lege mailako arau bat mugatzen duen interpretazio bat da**, eta horrek are gehiago **exijitzen du legegilearen borondatean berariaz oinarritzea**, ezin dena, inolaz ere, xedapen legal honetan aurkitu. Ez da, adierazitako bosgarren xedapen iragankorrean ikasturte zehatzik aipatzen, zuzenean edo zeharka, xedapen horrek familia zehatz batzuei zabaldu nahi dizkien onurei erreferentzia egiten zaienean.

Erakunde honek espediente honen eremuan egindako analisitik ondorioztatu daiteke, beraz, aipatutako legearen bosgarren xedapen iragankorrean jasotako familia zehatz batzuen kolektiborako onura, ikasturte guztietarako aitortu behar zaiela familia horiei, eta muga bakarra onuradun seme-alabek familia ugariari buruzko legediaren ezarpenaren eremuaren barruan egoteko adin legalaren irizpide legala betetzea izan behar dela. Gure ustez, interpretazio hau bakarrik egin daiteke eztabaida sortu duen xedapen legalaren izpiritu eta





literaltasunetik, eta *haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak* egindako *familia ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen* erreforma legalaren osotasunetik, erreforma lege horrekin batera doan arrazoien azalpenean bertan jasotako zentzuan.

7. Azkenik, **Estatuko Abokatutzaren Txostena** aipatu beharra dugu, Osasun, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun Ministerioak berak hala eskatuta 2016ko irailaren 6an igorritakoa, Madrileko Autonomia Erkidegoak egindako erreforma honen hedapenaren gaineko galdera batean oinarrituz (zehazki, eztabaida sortu duen bosgarren xedapen iragankorrarena). Osasun, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun Ministerioak berak 2016ko irailaren 28an igorritako informazio ohar berri batean adierazi duen moduan, honakoa ondorioztatu daiteke txosten juridiko horretatik (Ministerioak berak erabilitako terminoak literalki erreproduzitu dira, Estatuko Abokatutzak gai honetan hartutako jarreraren alderdi zehatzak azpimarratuz):

Efectos de la Disposición Transitoria quinta

Pues bien, el régimen transitorio concedido a los títulos de familia numerosa vigentes a partir del 1 de enero de 2015, esto es, con anterioridad a la entrada en vigor de la Ley 26/2015, de 28 de julio, se ha de poner en conexión con la mejora sustantiva dada al artículo 6 de la Ley 40/2003.

La mencionada Disposición dispone que la modificación del artículo 6 “será aplicable, a los exclusivos efectos de acceder a los beneficios en el ámbito de la educación relativos a los derechos de matriculación y examen previstos en el artículo 12.2.a) de la citada ley, a los títulos de familia numerosa que estuvieran en vigor a 1 de enero de 2015”.

*El mandato transitorio contenido por el legislador se circunscribe a los títulos de familia numerosa en vigor a fecha 1 de enero de 2015 y, en concreto, para los beneficios relativos a los derechos de matriculación y examen, **sin que se haya establecido en la norma de modo específico que estos beneficios se limiten a uno o varios cursos escolares. Por lo tanto, donde el legislador no ha distinguido no procede distinguir.** En consecuencia, siempre que los títulos de familia numerosa estén en vigor a fecha 1 de enero de 2015 y existan miembros de la unidad familiar que cumplan lo dispuesto en el artículo 6 de la Ley 40/2003, **tendrán derecho a los referidos beneficios relativos a los derechos de matriculación y examen, sin que proceda acotarse su ámbito temporal exclusivamente a un curso académico determinado.***

Estatuaren Abokatutzaren jarrera hori, “*donde el legislador no ha distinguido, no procede distinguir*” adierazten duenean, **Arartekoak duenarekin guztiz bat egiten du**, atzerago adierazitako zentzuan. Horrekin, gai hau axola zaien euskal administrazio guztiek euren jardunak legearen eta Zuzenbidearen menpe jartzeko duten betebeharraren argudio legala indartzen du, Konstituzioaren





103. artikulua harira, eta neurri horretan, euren titulua 2015eko urtarrilaren 1ean indarrean duten familia ugarien seme-alabei *familia ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen* 12.2 a) artikuluan jasotako matrikulazio eta azterketa onurak aitortzeko, legeak ezarritako gehieneko adin irizpideak betetzen badituzte, betiere.

8. Azaldutako arrazoiengatik, ondorioztatu dezakegu, aipatutako xedapen legalen harira, euren titulua 2015eko urtarrilaren 1etik 2015eko abuztuaren 17ra bitartean indarrean egon zen familia ugarien adin gutxiko anai-arrebei aitortzen zaizkien hezkuntza eremuko onuren hedapenari buruzko interpretazio egokia da aurreko gogoetetan defendatutakoa. Horrekin, **Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako interpretazioa**, kexagilearen familia onura horiek 2016/2017 ikasturtetik aurrera izatetik kanpo uzten dituen, **ez da Zuzenbideari egokitua eta familia ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen aldaketaren izpiritu eta literaltasunaren aurkakoa da, haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak** egindakoa.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera

GOMENDIOA

Kexagilearen adingabeko bi seme-alabei, ikasturte zehatzei dagokien mugarik gabe, familia ugarietarako buruzko legeditik sortutako hezkuntza eremuko matrikulazio eta azterketa onurak aitortzea, horiek legedi horren ezartze eremutik kanpo geratzeko adin legala bete arte.

